

BEZEROAK

Gure Kagashi aterkia adin guztientzako pertsonentzat eskuragarri izango da denda eta supermerkatuetan: pertsona adindu, heldu eta gazteentzat batik bat. Umeez ere erabili ahal izango dute, zazpi urtetik gorakoentzat gehienbat, erabilera ona izan dezaten eta arriskutsua ez izateko.

Pertsona adinduei, hau da, aitona-amonei, dexente erreztuko lieke bizimodua gure produktuak; izan ere, makulua eta poltsak eramateko eskuragarri utziko lituzke eskuak eta busti gabe lasaitasunez ibiltzeko aukera eskainiko lieke aterkiak. Gainera, mekanismoa ez da zaila eta erabiltzeko erraza egingo zitzaien zaharrenei ere. Beraz, adin horietako jendearentzat oso aproposa dela esan dezakegu ziurtasun handiarekin.

Helduentzat ere oso erabilgarria izango litzateke produktu hau, umeezkin doazenean, gauza ugari eramateko ahalmena izango luketelako, aterkia gerrian loturik: motxilak, poltxak, kotxetxoak... Modu honetan, aita-amak ez lirateke bustiko egun euritsuetan.

Gazteentzat ere baliagarria izango litzateke aterki hau, motxila eramaterakoan eta euria ari duenean bidaia erreztuko liekeelako eskolarako, institutorako zein unibertsitaterako bidean.

Hori guztia dela eta, diseinu bereziak aurkeztu ditugu adin bakoitzari egokituta.



